

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko apirilaren 4a

*



Aurtengoa seigarren denboraldia dute Gure Txokoako nesken taldeko jokalariek.

EGUNKARIA

Bortziriak, emakumeen kirol harrobia

■ 90eko hamarkadarekin batera, urrats garrantzitsuak eman zituzten Bortzirietako emakumeek kirol jardueretan parte hartzeko. Bortzirietako Kirol Elkarteak sortu eta ekimen berriak jarri ziren abian. Bortzirietako nesken saskibaloia, futbito, eskubaloia, herri kirol eta futbol taldeak sortu ziren. 1993an, baina, bertan behera gelditu zen Bortzirietako Kirol Elkarteak, eta horrekin batera,

martxan jarritako hainbat talde desegin eta beste hainbat hankamotz gelditu zen. Bortzirietako Futbol Taldean aritzen ziren neskek aurrera egitea lortu zuten, Berako Gure Txokoa elkartearen sartu ondoren. Duela hiru urte Gipuzkoako Liga irabazi zuten —Gure Txokoa elkartearen lehendakaria irati batetik deitu zuten arte ez zen enteratu— eta aurtengo lehenbizikoak dira oraingoz. ■

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Hale-Bopp kometari begira gaude egunotan. Bitxia eta ikusgarria ageri da zeruan. Ez du gure artean luze iraunen eta gehiago ez da itzuliko, ez epe laburrean behintzat.

Siniskeria batzuen jarraitzaileak kometak desagertu baino lehen joan dira haren lilurapean erori ondoren, eta pikutara joan zait —oraindik ere Hale-Bopp argia itzali ez den garai honetan— tren-garraioren sistemaren neukan konfiantza osoa. Azkenean, hegazkinari diodan beldurra gainditu beharko dut, garbi baitago seguru-segururik ezer ez dagoela, ezta lasaitasun ederra ematen zidan trena bera ere.

Ez da Nafarroan inoiz ezagutu Arakil-Uhartekoa bezain istripu handirik. Izan da bestelakorik, baina sekulan ez horren ondorio larria utzi duenik.

Hautzarotik trena gure paisaiaren zatia izan dugunontzat hautsi egin da zertxobait martxoaren aurtengo azken egu-

nean, barneko gure garraio-segurtasunaren oreka. Trena gure bidaia guztietarako erabili izan dugu trenbide ondoko herrikideok. Erosketak egitera joateko, medikuarengana hurbildu beharrean ginelarik, emigratio garaiko bidaia burutzeko, familiartekoak bisitatzeko, festaz festa ibiltzeko ere bai.

Herrien arteko lotura tinkoa izan da trenbidea eta esaten ohi zen zibilizazioa eta kultura ere trenetaz zatorrela. Harropuzkeria izan zen agian, baina trenbide ondoko herrietan esaten zen kontuz ibili beharra zegoela trena ikusten ez zuten herrietako biztanleekin. Nonbait basatiagoak zirela edo horrelako zerbait.

Beraien bidaia ez ziren hain eroso bestalde. Tren geltokia zuten bisitariak etxera itzultzen ziren gaurerako. Besteei berriz, festa zirela, hileta edo ezkontza bat zegoela eta, ohantzea prestatu behar zitzaizkien. Garestitagoak ateratzen ziren zalantzarik gabe.

Trena

Trena guretzat aurrerapenaren ikurra izan da eta herrien bizimoduaren garrantzi handikoa. Etxean entzuna genuen, bai, noizbait istripu bat izan zela trenbidean, nire herrian gainera.

1951ko abenduaren 30ean gertatu zen ezbeharra. Egun horretan neskato bat jaio zen herrian eta gauetz aditu omen ziren elkarren kontra tupustatzekotan zeuden bi tren-makinaren txistu-soinu larriak, baita ondorengo zarata ikaragarriak ere. Tren gidari bat hil omen zen hartan, esaten zigutenez.

Trenaren inguruan horixe da jaso nuen erreferentzia txar bakarra, eta bestek kontatuta nekien, gainera.

Egunotakoa ikusi ondoren, berriz hasia naiz pentsatzen ez ote zuen arrazoi pixka bat izanzen Noaingo apezak bere predikatuaren entzuleei esaten zienean: Ez begiratu herri ondotik kea botaz pasatzen den tramankultzar horri, infernuko asmakizuna baita. X

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Larraintzar: Joselu Anaiak taldeak kontzertua eskainiko du bihar, herriko pilotalekuan.

Gares: Izen bereko aretoan, Inmaculate Fools eta El Bosque taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, gaueko 11:00etatik aurrera. Sarrerak 1.200 balio du aurretik erosiz gero, eta 1.500 bertan.

Tafalla: Ritual de lo Habitual taldeak bere disko berria aurkeztuko du Gabalzeke ostatuan, gaueko 11:30etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusia: Pedro Osesen mar-goak gaurtik hilaren 20ra bitartean izanen dira ikusgai, Kultur Etxeko erakusketen gelan. As-tehelenetik larunbatera arratsaldeko 7:00etatik 9:00ak arte egonen da zabalik, eta jaiegunetan, eguerditik arratsaldeko 2:00ak arte.

Iruñea: Francisco Saenz de Oiza arkitektoaren lanen erakusketa zabalik da Nafarroako Museoa. Hilaren 27ra bitartean izanen da ikusgai.

Zangoza: Jose Miguel Corral margolariaren lanak igandera bitartean izanen dira ikusgai Kultur Etxean.

ANTZERKIA

Tutera: Castel Ruiz Kultur Zentruko antzerki ikasleek *El motor* lana taularatuko dute Gaztanbide antzokian, gaur, arratsaldeko 8:15etan.

Castejon: AZ Kultur Zerbitzuak taldeak *Sabina* lana taularatuko du bihar.

BESTELAKOAK

Zizur Nagusia: Kirol Patronatuak udaleku kanpaina berria pres-tatu du. Aurtan, Uitzin eta Nafarroa Behereko Bidarrain izanen dira uztailean, eta Uitzin, Bidarrain eta Baztanen abuztuan. Parte hartu nahi duenak, hil honen 10a arte du izena emateko epea. 9.000 pezeta ordaindu behar da.

Zangoza: Herriko Kultur Etxeak III. argazki lehiaketa antolatuko du. Argazkiek 15 x 20 zentimetroko eta gehienez 30 x 40 zentimetroko tamaina izan behar dute, zuri-beltzean egindakoak izan behar dute, eta 30 x 40 tamainako kartulina batean sartuta igorri behar dira, apirilaren 16a baino lehen, Kultur Etxera (Mediavilla kalea, 20).

Iruñea: Kontserbazio eta Zaharberitze Tailerrak altzariak, koadroak eta bestelakoak kontserbatzen eta zaharberritzen ikasteko tailerra antolatu du. Goizez eta arratsaldean izanen da, datorren astelehenetik ekainaren 12ra bitartean. Parte hartu nahi duenak, 21 26 76 telefono zenbakian jasoko du argibide gehiago.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Adiskideak etsai

Gure bizimodua gero eta gogorragoa omen denez, egutegian gorritz markaturiko hiruzpalau egun ikusi bezain laster etxetik alde egiteko gogoa pizten zaigu. Helburua ohikotik aldentzea izanagatik, ez pentsa horretarako

etxetik ateratzea aski denik. Izan ere, badira kilometro askotara joanda ere eguneroko kontuak ahazterik ez dutenak eta, alderantziz, bertze batzuk gai dira, etxean gelditu arren, opor egunez gozatzeko.

Nafar agintariek opor-beharrak bazutela al-tortu behar da, azken asteak oso gogorrak izan direlako. Gobernua osatu zuten geroztik, UPN-PPko batzuek azpimarratu dute, horretan interes pertsonala zutelako, Madrilgo Gobernua nafar

agintarien laguna izatea oso onuragarria izanen zela foru lurraldearen interesak defendatzeko. Horren frogatzat Gobernuak, Itoizko urtegiari buruzko adierazpenak alde batera utzita, funtzionarioen soldata igoeraren aurkako errekurtsioa aurkeztu du. Bien bitartean, uraren plataformakoek Tocinori Nafarroara etortzeko agindu diote urtegiaren inguruko polemika argi dezan. Bai, noizbait etorriko da, ikastetxe pribatuaren batek hitzaldi bat ematera gonbidatzen badu. Agian, horixe izan daiteke ministroarekin mintzatzeko okasioa. Hitzaldia bukatu eta gero, noski. Argi mintza gaitzen. Madrilgo Gobernuak berriki aurkezturiko errekurtsioa Nafar-

roaren eskubideen aurkako eraso argia izanagatik, oraingo agintariak ez dira gauza XIX. mende amaierakoa errepikatzeko eta, beraz, pentsatzekoa da ez dutela ministrorik kargurik gabe utziko. Bertalde, oraingoak ere ez dira Amadeo Marco bezalakoak, hura ministroen eta

Francoren beraren bulegoetara sartzen zen bitartean, hauek, antza denez, estatu idazkaritik gorako karguetara ezin dira heldu. Madrilgo Gobernua erantzutatu foru lurralde hain berezi eta dirdiratsu honek zer garrantzia duen argi dago eta horren erantzule nagusiak ez dira madrildarrak, nafarrak baizik.

Zurrunuruek diotenez, diputazioburua prest zegoen hordagoa botatzeko, gero eta argiago ikusten baitu etekinak eskuratzeko inguruan dutenel kasu egin beharrean Katalunian eta Gasteizen bilatu behar dituela ereduak. Esperientzia handiko aholkulariek, ordea, la-saitzeko erran omen diote eta, beraz, ez hordago eta ez enbido. Gertaturikoa estaltzen saiatu eta ia Jaimek bere tokaioarekin edo idazkariren batekin hitz egiten duen.

Oporaldiaren amaiera tragikoak hori dena ahantziaz badu ere, gobernuakideek badakite Arakil-Uharteko istripu izugarriaren oihartzuna isiltzen joanen dela eta, orduan, berriro, jendeari Madrilgo agintariak gure lagunak izatea oso onuragarria dela sinistartzeko ahaleginak egin beharko dituztela.



ahaztu gabe!



ANTZERKIA

Donibane-Garazi: Herriko Lizeoko 16 eta 17 urte inguruko ikasleen eskutik, *Gerezitzea* izeneko antzezlan estrena-tu zuen atzo Antton Lukuk, Vau-ban zinema aretoan. Atzo ikusi ez zutenek gaur izanen dute beste aukera bat. Leku berean izanen da antzezpina, gaueko bederatziatik aurrera. Antton Luku Lizeoko gazteen irakaslea da, eta *Gerezitzea* bere ikasleek antzezteko propio idatzi zuen antzerkigileak. Lizeoko aktore gazteok urtean zehar egiten duten lana saritzeko modu paregabea! Eta lan, gogor egiten dute lan Lizeoko ikasleek, urtero bi obra prestatu eta taularatzen baitituzte. Horietako bat frantsesez egiten dute, eta bestea euskaraz. Lukuren *Gerezitzea*, beraz, aurtan euskaraz prestatutako antzerki lana da. Antzerkigile horren eta Lizeoko ikasleen lanaren emaitza ikusi nahi duenak badaki: Donibane-Garaziko Vau-ban zinema aretoan du gaur zita, gaueko bederatziatan.

asteko pertsonaiak



Zupo Ekisoain
Lagun Aroko entrenatzailea

■ Joan den larunbatean jokatu zuten Asobal Ligako azken jardunaldia. Iruñeko Lagun Aro eskubalo taldeak bederatzigarren amaitu du denboraldia, 26 punturekin. Zupo Ekisoain entrenatzailea kontent agertu da aurtengo denboraldian lortutakoarekin. Azpimarratu duenez, Lagun Aro «sendotu egin da». Taldeak gora-beherak izan baditu ere, azken bederatzi partiduetan egindakoa nabarmendu du Ekisoainek batez ere, horietako zortzitan puntuak lortu baititu Lagun Arok. Kirol alorrari dagokionez taldeko kideak pozik badira ere, dirua da berriro euren kezka. «Datorren urteari begira, oraindik ez dakigu zenbat diru izanen dugun aurrekontua osatzeko. Ea dena ongi ateratzen den, ilusio handia baitaukagu».



Faustino Aizkorbe
Eskultorea

■ Faustino Gil-ek, *Faustino Aizkorbe* ezizen artistikoa duen eskultore iruñenseak, Agoitz Eskultura saria irabazi du, *Alegre recuerdo* obrari esker. Mundu osoko 61 artistak lan bana aurkeztu zuten Bilaketa kultur elkarteak antolatutako lehiaketara. Salvador Gutierrez Bilaketako eta lehiaketako epaimahaiko presidentearen arabera, «oso maila altua izan da, eta irabazlea zein zen erabakitzea lan nekeza izan da». Saritutako eskulturak bost metroko altuera du, eta, Gutierrezen arabera, «obra modernoa da, kutsu figuratiboa badu ere». Bilaketak 1,5 milioi pezeta (60.000 libera) emanen dio Aizkorberi. Horretaz gain, Agoitzko kale batean jarriko dute, eta bertan jende guztientzat izanen da ikusgai aurrerantzean.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostira-lera, *Zokobetailu*. goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkar-riketarako.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero Txirristi-Mirristi hau-rrerentzako saioa 12.30etan.

Elizondo

Udaberriko Feria ospatuko dute gaur

Ganadu eta bertako produktuen azokak izanen dira eguneko ekitaldi nagusienak

Baztan bailarako biztanle guztiek, Udaberriko Feria ospatzeko aukera izanen dute gaur Elizondoko karriketan. Goizeko bederatzietatik gaueko hamarrek arte ekitaldi ugari izanen da herrian. Ganadu eta bertako produktuen azokak ezezik, musika, dantza eta antzerkia ere izanen dira protagonista gaurko Elizondoko bestan.

Erredakzioa / Iruñea

ELIZONDARREK eta, oro har, Baztango bailarako biztanle guztiek udaberriaren etorrera ospatuko dute gaur, Udaberriko Feria egiten baitute herrian.

Herritarrek, Bertizko Patzuergo Turistikoak, Garalur Elkar-teak eta Baztango Udalak antolatuko dute ganadu eta bertako produktuen azoka, Nafarroako Nekazarien Kutxaren laguntzarekin.

Goizean goiz, bederatzieta, hasiko dira eguneko ekitaldiak eta gaueko hamarrek arte luzatuko dira gutxienez. Baztango bailarako nekazari eta abeltzainek hartuko dute parte ganadu eta bertako produktuek azoketan.

Ganadu feria, goizeko bederatzieta hasiko da Merkatu plazan. Ordu bete beranduago, erakustaldiak egiten dituzte leku berean. Besteak beste, lur azpiko produktuak nola egiten diren, zikiroa nola erretzen den, artoa nola chotzen den eta sagarrak nola xiatzen diren ikusi ahal izanen dute Elizondoko herritar eta bisitariak, ferian bildutako nekazarien eskutik.

Goizeko hamaikak eta arratsaldeko ordubata eta erdiak bitartean, eta bostetatik zortziak arte, bestalde, Nekazaritzako Elikagaien Azoka ospatuko dute, Udaberriko Feriaren egitarauaren barruan. Azoka horren bidez, bertako produktuak herritar-


rrengana hurbildu nahi dituzte antolatzaileek, Baztango nekazarietxan ekoiztutakoa ikusgai, dastagai eta salgai jartzeko aukera emanaz.

Goizean guztian, gainera, musika ez da faltako Elizondoko karriketan barrena. Hamaiketan, hain zuzen, txistulariak aterako dira kalera Elizondoko bazterrak alaitzera. Kale antzerkia ere protagonista izanen da gaurko Udaberriko Ferian. Trapu Zaharra taldeak, hain zuzen, *Tambores Mundi* izeneko ikuskizuna aurkeztuko du Elizondoko karriketan, eguerdian, herritar eta bisitari guztien aurrean.

Txistulari eta aktoreen lana ezezik, bertsolariena ikusi, entzun eta gozatzeko aukera ere izanen da gaur Elizondoko Udaberriko Ferian. Hamabi eta erdietan hasiko da saioa Merkaturako plazan. Nekazaritzako Elikagaien Feriako giroa alaituko dute bertsolariak.

Dantzariak arratsaldeko seietatik aurrera izanen dute euren ikuskizuna erakusteko aukera. Zazpi eta erdietan, halaber, txistu kontzertua izanen da herriko Arizkunenea etxean. Leku berean, hitzaldia eskainiko du Gabriel Errandoneak nekazaritza eta abeltzantza ekologikoari buruz, *Benetako alternatiba* lelopean.

Aurtengo Udaberriko Feriari akordeoiaren hotsak emanen dio amaiera, gaueko hamarretatik aurrera. X



Ganadu feria eta bertako produktuen azoka egiten dituzte gaur Elizondon.

ARTXIBOKOA

Etxauri

Etxauriko Krosa korrituko dute igande goizean

■ Hemeretzigarren ekitaldia izanen da aurtengoa

Erredakzioa / Iruñea

UDABERRIAREKIN batera, gure herrialdeko hainbat herritan ohikoak diren herri lasterketak ailegatu dira aurtengoa ere.

Lesaka eta Lekunberrin bezala, besteak beste, Etxaurin ere bada herritarren artean ezaguna den krosa: Etxauriko Mendateko Igoera, alegia. Igande honetan izanen da aurtengo ekitaldia.

Gainera, Etxauriko Krosaren hemedetzigarren ekitaldia izanen da. Lasterketa goizeko hamaiketan hasiko da, herritar bertan.

Parte hartu nahi duenak krosa hasi baino bost minutu lehenago arte izanen du izena emateko epea. Denak Bat lasterketa antolatzen duen elkartearen egoitzan bertan. Denak Bat kirol elkarteak atletismo saileko kideak dira, zehazki, lasterketaren arduradunak.

Herritar guztiei parte hartzeko deialdia egin diete dagoeneko, eta korrikalariak animatzeko partehartzaileek kamiseta bana jasoko dutela aipatu dute.

Beste saririk ere banatuko dute antolatzaileek, alegia, helmugara ailegatzen den lehenengo korrikalariarena, bigarrenarena eta hirugarrenarena, lehenengo emakumearena, lehenengo gaztearena —1983. urtetik aurrera jaiotakoak—, lehenengo herritarrena, korrikalaririk gazteenarena eta zaharrenarena.

Sari berezirik ere izanen da aurtengo ekitaldian, Antonio Onecak 30.000 pezetako saria eskaini baitu lasterketako errekorra hobetzen duen korrikalariarentzat. Gaur egun, Carmelo Comasen esku dago Etxauriko Krosako errekorra: 27 minutu eta 30 segundo.

Igandean denbora hori inork hobetzen ez badu, hurrengo ekitaldirako gordeko dute lasterketaren antolatzaileek Antonio Onecak eskainitako saria.

Halaber, lasterketa amaituta, Denak Bat elkartearen egoitzan hamaiketako eskainiko diete antolatzaileek partehartzaile guztiei. Beraz, saririk eskuratzen ez duen korrikalariak sabela ongi betetzeko aukera izanen du, behintzat.

Bestalde, aipatu beharra dago, urtero bezala, segurtasun neurri bereziak hartu dituztela antolatzaileek. Bate-tik, anbulantziak eta sendagileak izanen dira ibilbidean, eta, bestetik, foruzainek trafikoa kontrolatuko dute. Korrikalariarentzat dutxa eta aldagelak ere prestatuko dituzte antolatzaileek. X

Bera

Inauguratu dute Alkaiaga auzoko industrialdea

■ Hamabi enpresek lekua eskatu dute dagoeneko

Erredakzioa / Iruñea

ALKAIAGAKO industrialde berria ofizialki inauguratu zuten martxoaren 18an. Ekitaldian Bera, Lesaka eta Etxalarko udaletako ordezkariak izan ziren, baita Emilio Izquierdo Nafarroako Gobernuako Industria Saileko zuzendari nagusia ere. Guztira, 181.610 metro koadro ditu Alkaiagako industrialdeak. Horietatik 85.413 industriarako erabiliko dituzte eta gainontzekoak bideek eta berdeguneek beteko dituzte. Oraindik partzelarik saldu ez bada ere, hamabi enpresek lekua eskatu dute dagoeneko Alkaiagako industrialdean.

Enpresa horietako bederatzia nafarrak dira, beste bi gipuzkoarrak eta azkena iparraldekoa. Enpresa horietako seik, halaber, industriaren alorrean egiten du lan, hiruk biltegi edo banaketa lanak egiten dituzte, bi tailerrak dira, eta azkena, garraio enpresa bat. Nafarroako Gobernuak, 7.000 pezetan salduko du metro koadroa. 12 enpresen artean hamahiru partzela eskatu dituzte, industrialdearen % 25a. Oraindik beste 32 partzela daude salgai.

Alkaiagako industrialde berriaren bidez, industriak erakarri eta lanpostuak sortzea da inguruko udaletako ordezkarien helburua. X

Burlata

Literatura, kartel eta argazki lehiaketak prest

■ Udalak parte hartzeko deialdia zabaldu du

Erredakzioa / Iruñea

BURLATAKO Udalak, herriko jaiak direla-eta, kartel, argazki eta literatura lehiaketetan parte hartzeko deialdia zabaldu du dagoeneko. Uztailaren 1ean amaituko da hiru lehiaketetako lanak aurkezteko epea, eta epaimahaiaren erabakia uztailaren 20an emanen dute eza-gutzera. Sariak abuztuaren 14an banatuko dituzte, herriko bestetako lehenengo egunean, alegia.

Kartel lehiaketari dagokionez, hiru kategoria zehaztu dituzte, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat lehenengoa, 15 eta 18 bitartekoentzat bigarrena,

eta 18 urtetik gorakoentzat hirugarrena.

Argazki lehiaketari dagokionez, gaia librea izanen da eta partehartzaile bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izanen ditu. Kategoría bakarra izanen da lehiaketa honetan.

Literatur lehiaketa, azkenik, ikastetxeetako neska-mutleiei dago zuzendua batez ere, eta euskaraz eta erdaraz aurkeztu ahal izanen dira lanak. Zortzi eta 11 urte bitarteko haurrek bi orrialde idatzi ahal izanen dituzte gehienez, eta 12 eta 15 urte bitartekoek, berriz, hiru orrialde. Gaiari dagokionez, nahi dutena aukeratu ahal izanen dute partaideek. X

Gure Txokoako nesken
seigarren denboraldia

Gure Txokoako neska futbolariak

Emakume beratar eta lesakarrak osatutako futbol taldea lehenengo sailkatua da Gipuzkoako Ligan

Orain dela sei urte sortu zenetik gora-behera ugari bizi izan badu ere, Gipuzkoako Ligako lehena da une honetan Berako Gure Txokoa elkarteko nesken futbol taldea. Liga irabaztea zer den ere bada-kite Bera eta Lesakako neskek, orain hiru urte lortu baitzuten, baita Euskadiko Ligan jokatzera ere. Bera bezalako herri txiki bateko talde txiki batentzat lorpen handia, nahiz eta herrian bertan jende asko ez konturatu.

Eduene Elizondo / Bera

ASTELEHENA hotz esnatu zen Beran, baina goizak aurrera egin ahala herriko bazterrak berotzen hasi ziren eguzki printzak. Hamabost eta 28 urte bitarteko beratar eta lesakarrak osatu Gure Txokoa elkarteko futbol taldeko kideak Agerra zelaira iritsi zirenean, ordea, ihintzak bustita ziren oraindik belardi zaharreko bitxiloreak. Goizeko hamaikak izateko hamabost minutu falta zirenean, entrenamenduari hasiera eman zion Jose Luis Alzugarai Zikro-k.

Gure Txokoako futbolariak ez ziren jai egunean kirola egiten ari ziren bakarrik. Errepide ondoko Agerra zelaitik hurbil igaro ziren, besteak beste, bi txirrindulari gazte. Bi mutil. «Hara, neska da atezaina!», oihukatu zuen haie-tako batek, inolako lotsarik gabe. Zer erranen ote zuen taldeko gainerakoak ere neskak zirela konturatu izan balitz?

Zehazki, hamasei neskak osatzen dute Gure Txokoako nesken futbol taldea: Estitxu Fernandez (erdilaria), Juana Aleman (erdilaria eta taldeko kapitaina), Ainhoa Irazoki (atzelaria), Idoia Etxepare (atzelaria), Itxaso Villanueva (erdilaria), Itxaso Yantzi (atzelaria), Izaro Mitxelena (erdilaria), Gurutze Villanueva (aurrelaria), Gorane Artieda (atezaina), Miriam Erkizia (atzelaria), Eduene Telletxea (erdilaria), Mirentxu Garcia (aurrelaria), Maider Gorria, Maite Iturralde (erdilaria) eta Amaia Ruiz (aurrelaria).

Nafarrak Gipuzkoako txapeldun • Agerra zela ondolik igaro zen txirrindularia neskak futboleant ari zirela ikustean hainbeste harritu bazen ere, dagoeneko sei urteko ibilbidea dute atzean Gure Txokoakoe. Lesakarrak lehe-



Astean hirutan entrenatzen dira Gure Txokoako neska taldekoak.

JAGOBA MANTEROLA

nago, orain bederatzi urte hasi ziren Beti Gazten. Elkarte horretako nesken taldea desegin zenean, Beran futbiton jostatzen hasi zirenekin elkartu ziren lesakarrak, eta Bortziriak Kirol Elkartearen ekimenaren bidez, Bortziriak Futbol Taldea osatu zuten inguruko emakumeek.

Bera, Lesaka eta Arantzako neskak elkarrekin aritzen ziren Bortzirietako Futbol Taldean. 1993an, ordea, Bortzirietako ki-

rol koordinatzailearen figura desagertu zen, eta harekin batera Bortzirietako nesken taldea. Noraezean gelditu ziren futbolariak. Berako Gure Txokoan hartu zituzten arte.

Neska futbolari eta futbolzaileon ibilbidea Nafarroako eta oro har Euskal Herriko beste hainbat talderena bezain luzea ez bada ere, lorpen garrantzitsuak eskuratu dituzte, are gehiago Bera bezalako herri txiki bateko taldea direla kotuan hartuz. Bada, dena den, oraindik osoki lortu ez duten zerbait: herrian egiten duten lana behar bezala baloratzea. «Jendea ez da gure partiduak ikustera etortzen», kexatu dira jokalaria. Zikro entrenatzailearen ustez,

dena den, egoera aldatzen hasi da, eta Elgoibarren kontra jokatu zuten azken partidua aipatu digu adibide: «Gu ikustera mutilen partidua ikustera baino askoz jende gehiago etorri zen».

Elgoibarren kontra jokaturako azken partidua, dena den, ez zen arrunta izan, 3-2 irabazi ondoren Gipuzkoako Ligako lehen postua lortu baitute beratarrek igoera faseko lehenengo itzulian, Elgoibarko taldea bigarren utziz.

Maiatzaren 25ean amaitzen den Liga irabaziz gero, Euskadiko Ligan jokatzeko aukera izanen lukete Gure Txokoako neskek.

Euskadiko Liga, hala ere, ez da ezezaguna futbolariarentzat, orain hiru urte Gipuzkoako Liga irabazi baitzuten eta hurrengo bi denboraldietan liga nazionalen jokatu. Tuterako taldea eta Iruñeko Lagunak, Amaia eta Donibane talde nafarrak izan zituzten orduan jokoan kide. «Dudak izan genituen hasieran. Bidaia luzeagoak ziren, epailea ordaindu behar genuen... Gure Txokoa elkartek ere ez igotzeko erran zigun hasieran, nahiz eta gero lagundu», gogoratu du Estitxu Fernandez bertsolari eta futbolariak. «Gure kabuz ere mugitzen hasi behar izan genuen», gaineratu du 28 urteko Juana Alemanek, taldeko kapitainak.

Euskadiko Liga Gipuzkoakoa baino gogorragoa izan zen Gure Txokoako neskenentzat. Gainontzeko taldeetako jokalaria ez zizkiz, beste kontrario bat izan zuten taldekideek: baliabide falta, alegia. Baliabide ekonomikoak, alde batetik —oraindik ere jokalariek erosi behar dituzte euren botak, eta autoz joan behar dute partiduetara—, eta giza baliabideak, bestetik, plantila motza baitu Gure Txokoak.

«Ez da erraza. Batzuk kanpoan ikasten dute eta Bera ere herri txikia da. Elgoibarrek, adibidez, 24 neskako plantila du, guk hamaseikoa. Partidu askotara hainbat neska bakarrik joan izan gara», azpimarratu du Ainhoa Irazokik. Hori guztia dela eta, mailari eutsi bazioten ere, iazko urrian hasi zen denboraldia Gipuzkoako Ligan jokatzera erabaki zuten Gure Txokoako neskek.

Orain arte bezala jokatzera jarraitzen badute, baina, berriro Euskadiko Ligara igotzeko aukera izanen dute Berako taldeko kideek, lehenak baitira oraingoz. Maiatzaren 25era bitartean, dena den, beste bost partiduko jokatu behar dituzte oraindik Gure Txokoako neskek. Lehenengoa Zumarragan jokaturiko dute, datorren apirilaren 13an. Orain artean, bi partiduko besterik ez dute galdu Bortzirietako futbolariok, eta Aitziber Gutierrez aurrelaria Ligako pitxitxia da, 20 gol sartu ondoren.

Gure Txokoakoak, Euskadi eta Espainiako selekzioetan •

Euskadiko eta Espainiako selekzioetan jokatzera ere lortu dute Gure Txokoako hainbat neskak. Izaro Mitxelena, Eduene Telletxea, Idoia Etxepare, Mirentxu Garcia eta Miriam Erkizia, hain zuzen, Euskadiko Sub 18 selek-

Jose Luis Alzugarai: «Taldea orekatua da, teknikoki eta taktikoki polita. Orain, gainera, hagitx motibatuak daude neskak»

Ainhoa Irazoki: «Jende gutxi gara, ez baita erraza. Batzuk kanpora joaten dira ikastera, eta Bera ere herri txikia da»

Gure Txokoako nesken
seigarren denboraldia

zioarekin aritzen dira. Miriam eta Edurnek, gainera, absolutuarekin jokatu izan dute. Bi jokalariorik Bartzelonan izan dira berriki ere, Espainiako selekzioak deituta.

«Zazpigarren mailan hasi nintzen futboleko jokatzen ikastolan, Zikiro-rekin» gogoratu du Miriam Erkiziak. Asteleheneko entrenamenduan huts egin zuen jokalarietako bat da bera, Almerian baitzegoen Euskadiko selekzioarekin autonomien arteko txapelketa jokatzen. Hurrengo fasera sailkatzea lortu zuten, gainera. Lloreten izanen dute hurrengo zita.

Irabazi ondoren, pozik zen Miriam, futbola biziki gustatzen baitzaio gainera. Taldeko kide guztiei bezala, bestalde. Gure Txokoako nesken taldeak aurrera egin badu, osatzen duten jokalarien eta bere entrenatzailearen ahaleginari esker izan baita. Horregatik, Espainiako selekzioak taldeko bi neska deitu izana hagitz garrantzitsutzat jotzen dute denek.

Orain hiru aste, hain zuzen, Bartzelonako Errendimendu Altuko Zentroan izan ziren Miriam Erkizia eta Edurne Telletxea beratarrek. «Esperientzia polita izan da. Lau egun egon ginen, eta goizez eta arratsaldean entrenatzen ginen. Nekatuta bukatu genuen, baina ongi, beste askok medikuarengana joan behar izan baitzuten». Bartzelonan egondako neska guztiak berriro deituko ditu Espainiako selekzioak, eta gero, aurtengo Eurokopa jokatuko duten neskek hautatuko ditu. Miriam Erkiziak badaki oraindik erabakia ez dagoela hartuta, baina aitortzen duenez, «motibazio handia izanen litza-teke, adibidez, suitzarren kontra jokatu ahal izatea».

Aurten ez bada, izanen du aurrerantzean, ziurrenik, beste aukerarik, hemezortzi urte besterik ez baitu Miriam Erkiziak. Beran eta Lesakan, dena den, badira futboleko hasi diren bera baino neska gazteagoak, Gure Txokoako nesken taldeko kideak egiten ari diren lanari esker, hain zuzen. Juana Alemanek neska talde polita du Lesakan, eta Gorane Artiedak, Beran. Joaquin Yantzik, gainera, Donostiako Kontxako hondartzan aritzen den beste talde bat entrenatzen du Beran bertan.

Jose Luis Alzugarai Zikiro, Gure Txokoako nesken entrenatzailea, kontent da harrobia sortzen ari dela ikusita. Gure Txokoako neskekin lanean hasi aurretik, Añorgako neskek entrenatu zituen bi urtez. Berako ikastolan lanean hasi zen gero, eta bertan hasi zen neskei futboleko jokatzen irakasten.

Orain, talde ona duela uste du lesakarrak. «Taldea orekatua da, teknikoki eta taktikoki polita, eta fisikoki ongi daude neskek. Eta orain, gainera, hagitz motibatuak». Euskadiko Ligan emandako bi denboraldi buruz, esperientzia polita izan zela onartzen badu ere, jokalariek gaztegiak zirela uste du Zikiro-k. «Baina ilusio handia zuten, eta aurrera egin genuen». Orain ere ilusio bera dute Gure Txokoako neskek. Eta ez da gutxiagorako!



Berako eta Lesakako neskek Agerra futbol zelaietan entrenatu ziren astelehenean.

JAGOBA MANTEROLA

Bortzirietako Kirol Elkarteak, bultzatzaile

GAUR EGUN Bera eta Lesakako neskek futboleko aritzeko aukera badute, 1990-1993 bitarteko epean Bortzirietako kirol koordinatzaileak egindako lanari esker da, neurri handi batean. 1990. urtean figura hori sortu zuten Bortzirietako udalek, eta 1993an, berriz, bertan behera utzi zuten, nahiz eta Bortzirietako elkarteak % 90ek kirol koordinatzailea izatea beharrezkotzat jo.

Urte oparoak izan ziren inguruko emakumeentzat, kirolari dagokionez, Mattari Alzuarterek gogoratu duenez. «Kirol elkarreetatik kanpo gelditzen ziren jarduerak bultzatzen saiatu ginen, eta era berezian, emakumeen partehartzea bultzatu genuen». Bultzada eta ahalegin horren ondorioz, Bortzirietako Kirol Elkarteak sortu zen, eta bere eskutik, herri kiroleko, saskibaloian, futbitoan eta eskubaloian aritzeko hainbat talde. «Hamar taldetik zazpi, emakumeek osatutakoak ziren».

Bortzirietako Kirol Elkarteak laurhun kide inguru bildu zituen, eta kirol jarduerak bultzatzea ezezik, inguruko herri txikiak ere sartzea izan zuen helburu. Bera eta Lesaka bezalako herrien eta bertako Gure Txoko



Aste Santuan ere ez zuten atsedenik hartu Gure Txokoako neskek.

JAGOBA MANTEROLA

eta Beti Gazte kirol elkartearen indarra, baina, handiagoa izan zen, eta Bortzirietako kirol koordinatzailearen figurarekin batera, bertan behera gelditu zen Kirol Elkarteak ere, 1993an.

«Ez dut inoiz ulertuko gertatutakoa», aipatu digu Alzuartere baztandarrak. «Emaitzak hor dauka, gauza asko egin genuen, talde berriak sortu genituen, baina Gure Txokoak eta Beti Gazte ez zuten inoiz ulertu guk betetzen genuen papera. Finean, kirol koordinatzailearen lana herrietako

taldeei laguntza ematea ere bazen, baina Bortzirietako Kirol Elkarteak ez zuten ongi ikusi».

1993an, bi urteko ibilbidea burutu ondoren, bertan behera gelditu zen Bortzirietako Kirol Elkarteak, eta harekin batera, bere eskutik sortutako hainbat talde. Emakumeen artean kirola bultzatzeko ekimena ere hankamotz gelditu zen. Saskibaloian, eskubaloian eta futbito taldeak desegin ziren, eta futbol taldeak Gure Txokoaren baitan sartu behar izan zuten aurrera egin ahal izateko.

Herri kiroleko emakumeek egindako urratsak bertan behera gelditu dira. Lesakarrak izan ziren soka eta herri kiroleko gainerako tresnak eskuetan hartu zituzten lehenengoak. Arrakastarik handiena, hala ere, beratarrek lortu zuten.

Berako nesken abentura 1991. urtean hasi zen, herri kirolak egiteko gogoz zegoen emakume taldea elkartu zenean. Eta gogoz hasi gainera, 1991. urtean bertan, Nafarroako lehen sokatira txapela eskuratu baitzu-

ten beratarrek. 1992an eta 1993an ere Nafarroako txapeldun izan ziren, eta 1994an, bat aski ez eta bi txapel-eraman zituzten herrira: 480 kilotako kategoriakoa, eta 520etako. Nafarroan ezezik, Euskal Herriko Sokatira Txapelketan ere bitan parte hartu zuten Berako neskek, eta bietan brontzezko domina eskuratu zuten. Geroztik, erakustaldietan parte hartzeko baino ez dute hartu soka Berako neskek.

Kirol koordinatzailearen bitartez sortutako dinamika neurri handi batean hutsean gelditu dela ikusteak frustrazio handia sortarazten dio Mattari Alzuarteri: «Pena, pena handia».

Emakumeek kirol jardueretan barneratzeko egindako urratsak gogoratzen ditu berak gehien, eta alor horretan emandako etenak kezkatzen du gehien. «Eskualdean bizi den egoera aztertu behar da, eta emakumeek kirol gutxi egiten badute, egoera hori aldatzeko elkarrekin lan egin behar dutela uste dut. Euren zeregina ere bada emakumeen partehartzea bultzatzea. Gogoratu behar dute kirolak ez duela lehiaketak egiteko bakarrik balio». ✱

Xanti Begiristain

Alde Zaharreko koskak

■ Iruñean bizi garen guztiok oso ongi dakigu nola dagoen hiriko Alde Zaharra, eta askoz ere hobekiago dakigu oraindik, mugikortasuna murriztua daukagun pertsonok. Egia esan, azken hilabeteotan, Iruñeko Udal plaza eta inguruko zenbait kale moztuta eta hankaz gora daude, egiten ari diren lanak direla bide. Deserosotasun horiek oraindik luzaro pairatu beharko ditugu denok, seguru asko, eta bereziki gutxitu fisikook. Baina hori guztia jakina da, eta, beraz, goazen aurrera beste gauza batzuk iruzkintzera.

Jakina den bezala, Iruñeko Alde Zaharrean aspaldian hasi zen auzia. Zazpi edo bederatzi kale jarri nahi dira oinezkoentzat, eta kontua zera da, zer egin galtzadarriekin?, denak kendu?, denak utzi?, batzuk bakarrik kendu? Arazo hori dela eta, Iruñeko Udalak eta Alde Zaharreko

kaleen erdian galtzadarriak ongi paratuak, espaloak altuera berean, hots, galtzadarekiko maila berean, eta espalo horiek harlauzez eginak.

Baina Gutxitu Fisikoen Koordinakundeak, aldi berean, aprobetxatu zuen gauza batzuk iradoki, gogorarazi eta eskatzeko, hots, lan handi eta erraldoi horiek egiten diren bitartean, ez daitezela ahatz beste batzuk, honako hauek zehazki, kaleak berritzen eta birmoldatzen diren bitartean, aprobetxa dezatela etxebizitzetako sarrerak eta zentro komertzial guztietako atariak ongi egokitzeko, hau da, ken ditzatela sarbideetako koskak, gurpil-aulkiekin modu erosoan sartzeko, batez ere, eragozpen tekniko handirik ez dagoen haletan guztietan. Bideanabar ere, eskatu genuen jarri behar dituzten hirigintza-al-



zenbait talde interesatuk deitu zioten, besteak beste, Nafarroako Gutxitu Fisikoen Koordinakundeari eman zitzaen bere iritzia eta iradokizunak.

Hala bada, Koordinakunde horrek, gutxienez, hiru bileratan parte hartu zuen adierazteko talde honen ideiak eta pentsamenduak.

Egia esan, Koordinakunde horren barruan ere iritzi ezberdin eta konfrazarriak zeuden. Batzuek galtzadarriak ez zituzten ikusi ere egin nahi, beste batzuk, berriz, konforme ziren galtzadarriak uztearekin, ongi jarrita eta mantenimendu egokia eginez gero.

Dena den, Nafarroako Gutxitu Fisikoen Koordinakundeak laster lortu zuen adostasuna bere barruan, eta horrelaxe jakinarazi zien Udalari eta beste taldeei, idatziz. Laburbilduz, honako hauxe zioen: Koordinakunde honek ongi ikusten du eta onartzen du proposamen mistoa, hau da,

tzari guztiak izan daitezela egokiak eta erabilgarriak pertsona guztientzat, hots, gutxitu fisiko eta sentsorialentzat ere bai, konparaziora, iturriak, paperontziak, telefono-kabinak, gutu-nontziak eta abar.

Hara ba, azkeneko altzari horiei buruz, momentuz ez daukagu deus ere esateko, ez dituztelako jarri, baina etxebizitzetako atari eta zentro komertzialetako sarrerei buruz, ordea, zoritxarrez esan behar dugu ez digutela batere jaramonik egin. Orain arte egin dituzten kaleetan ez da ia-ia inolako hobekuntzarik somatzen, lehenago koska berak utzi dituzte sarreretan, eta halaxe jarraitzen dituzte uzten.

Hortaz, hitz politak eta goxoak, bai, eman zizkiguten, baina ekintzarik ez. Suspentsoa beraz, Iruñeko Udalarentzat eta bereziki Ricardo Pascualentzat, Alde Zaharreko zinegotzi ordezkaria. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidadador

Euskal Esnalea aldizkariko 7 emazteki

■ Gaitezen misantropo, gu ere bai, eta *maestrilla erretxin* batek Patziku Perurenari egotzi salaketa mehatxatzaileari arreta haundirik egin gabe, *misoginoak gabela eta puntol*, hots, gazteño bat baino gehiago saminki altara dezakeen mende hasmentako hainbat emakumezko idazlarien ekarpenen berri bertara ditzagun, ez itzaltzeaz litezkeen su txingar apalak bizi ozenagotzeko asmotan, zinez garaiko emazteki zenbaitzuren kemena eta ausardia gorlapatzeko baizik. Gerra aurretian argitara eman zen *Euskal Esnalea* honetan, gure zoko bitxian horrenbestetan ageri zaiguna bestalde, zenbait andereen ekarpena aizaratu zen 1929. eta 1931. urte bitartean hiru autu zartatzekotan: *emakumearen zoriona zertan ote datzan*, *emakumeak euskararen aferan lezakeen ardura* eta *bietan zein den kementsuagoa, glzona ala emakumea*. Bahe ditzagun banan banan beraz zazpi lagun hauen ekarriak.

Emakumearen zorion-izalea izenburupean 1929.eko ilbeltzatsaileko zenbakian Azkoitiko Rufina Azkue irakasleak hasiera eman zion parte hartze urri baina gohatsu honi. Lehenbiziko lerroetatik argikiro azaldu zuen zioaren nondik norakoak: «Gai zalla ta neketsua eman diguzu, *Esnalea*, emakumearen zorion billa jarri-eraziaz. Ez dituzu ikusten zuk, *Euskal Esnalea*, zorion egarriz itotzeko zorian dabilzten ameika emakume, beren lan eta buruauste guztiakin ere oraindik zorion-orpoa ikutu ez dutenak? Orrelako alegiñak egin arren oiek inoiz arkitu ez duten zoriontasun ori nun dagoan esatea nai dezu beraz». Ez da orduan emakumeak berak aukeratu gaia, aldizkariko gizonak, Campionek eta Anabitartek, esleitu eta garatzeko emanikoa baizik. Guziarekin, Azpitikoari ez zitzaion luma erlastu, eta egoalaren bestelakatzeko arrazoi sakona eman zuen ildi-maldo balantzan egin gabe: «Egiaz, gaurko egunean gauz askotan begiak illundu, adimena lausotu eta biotza okertu zaigu, eta orrexegatik zoriontsua izateko inon eta inoiz arkituko ez dan izakera nai dute askok: jostaketa, apainduria, atsedeen utsa; baina zoriona ez dago lanik gabe bizitzean, lanaren ondoren datorren atsedenean eta atsedenean orren itxaromenean baizik. Zein dira bada emakumearen lanak? Gauza jakina da onen bearra, sendiaren ama izatea dala. Gaurko emakumeak gizasemien lanen zale dira. Emakumea etxerako dala sarritan entzuten da, ta a zer nolako egia!».

Bigarren izkiriabidean, hau da, emakumea eta euskara uztartzeko hautaturikoan, Joakina Garaialde tolosarra eta Rufina Azkue ditugu iradokile, eta besterik ezin zitekeen gisan, biak hatzez hatz bat datoz. «Sendiyan emakumea da agintari bakarra, etxe-koandrea, ori ezin ukatu liteke. Sendiya berak egiten du zorioneko edo zoritxarreko, langile edo nagl, apal edo dolorra. Bera da guziyen ikasbide, ta bere seme-alabetan ezagutzen da ederki emakumeak al dezakeana», dio Garaialdek baikor, eta Azkuek osogarri: «Zein trebetasun aundia degun gure oitura eta asmoetara bestiak ipintzeko. Orain euskaltzaleak dira izkuntz eder au zaltu, zabaldu, eta euskal-usaia duan guztia ganako erriaren maitasuna piztu nairik, orretarako emakumeak duan egokitasuna ezagututa, bere bila datozenak». Nolanahi ere, emazteki orok ez dauka juzku berea, eta salda gainean gogor gatzatu goipeaz beheiti, jazokunaren ikuspegi ezezkor baina egiantzekoagoa pape-reratu zuenik izan bazen: «Egiaz negargarria da gaurko egunean emakume euskaldunen artean egunero gertatzen zaiguna: euskera alde batera utzi, ta dakitenak eta ez dakitenak barra barra erderaz itzezin bear. Euskalerrian bizi ote gera?». Hauxe Albizturreko Rita Errezola genuen, eta bere ildo beretik Olartzungo Josepa Martiarena bazebilkigun: «Euskaltzaletasunean ere emakumiak zer edo zer izango giñake, nai bagenu. Gure izkuntza gutxitzean emakumea dala errudun diote batzun batzuk, nik ere ez nuke ezetzik esango». Honen gehigarria Zarauzko Florentina Loitegi eta Mezkirizko gure Perpetua Saraguetak ekarri ziguten, aldizkariak luzatutako galdera bati igorri erantzunen bitartez. Euskara goratzeko diru beste izatekotan, Zarauzkoak argitalpe-nak sustatuko lituzke batik bat: «Euskal egunkaria, *Ikuste aut* izeneko aldizkigintxo umetxuentzat, moda edo apainketa guzien berri ekarriko lukeen aldizkigintza jostundegi eta andereen artean banatzeko». Saraguetak ordea euskal eskola bultzatuko zuen, «en los límites de Vasconia con Castilla y en todo el territorio vascon».

Azken eztabaida Mungiako Jule Gabilondok aitzinaratu zuen: «Baña, zoritxarra erropenez eramaten adoretzuagaa, kementsuagaa, nor ete da: gizasemea ala emakumea? Emakumea, aurki, neure ustez. Maitasuna da, ba, ene irakurle maitia, adore ta kemen-iturburua, ta ama, ludlan izan daikenik gauzarik maitatiena dalako, emakumia, gizasemea baño adoretzuagaa dala zoritxaraldian, esan gegike, noski». Idatz aitzaki enul eta huts hau ere Rufina Azkue azkoitiarrak erabili zuen itxuraz sakonki ere: «Gogo sendotasunak bi eginkizun ditu: jasan eta eraso; eraman eta ekin. Jasan, eraman, bildur ta kokiltasuna azpiratzen dituan- ez, sendotasunari dagozkion egizkizunak dira; eraso, ekin berriz, azarkeria neurritzen duanez dagozkionak. Au onela izanik, orain esan genezake bi eginkizun oietatik lenbizikuan, jasatzean, emakumea kementsuagaa dala. Erasotzeko, ekiteko, gizezko adoretzuago agertu oi da gelenetan, egia da; baña eginkizun onetan ere, bere aultasunetik indarra atereaz bezala, bere lagunik bizkorrena askotan izanaz gafiara, erasotzeko bear duan indarra emakumearen ikasbideak gizonari askotan eman dio». ■

Laxo txapelketa hasi da

Baztan-Malerrekako XVIII. lehiaketak Bertizko Turismo Partzuergoaren babesas jaso du

Baztan-Malerrekako XVIII. Laxo Txapelketa abian da jada, Laxoa Elkarrekin antolatutik, eta Bertizko Turismo Partzuergoaren babespean. Joan den asteburuan denboraldi-ko lehen norgehiagokak jokatu zituzten aurten txapelketan parte hartzen ari diren hamar laukoteek. Taldeok ekainaren 22ra arte larunbatero lehiari ariko dira, hoberena zein den erabakitzeko.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

HAMAR talde ari dira Baztan-Malerrekako XVIII. Laxo Txapelketan. Hamar laukoteok bi taldeetan banatu dituzte. A taldean ari dira Doneztebe B, Arraioz, Oitz B, Doneztebe C eta Doneztebe A. B taldean ari dira, berriz, Irurita A, Oitz A, Elizondo, Irurita B eta Irurita C. Txapelketako lehen fasean talde bakoitzean ligatxoak jokatzeko ari dira. Lehen jardunaldia joan den larunbatean jokatu zuten, eta larunbatero norgehiagokak izanen dira maiatzaren 25era arte. Txapelketako bigarren fasean, talde bakoitzeko bi laukoterik hoberenak ekainaren zortzian eta 15ean finalerdiak jokatuko dituzte. Finala, azkenik, ekainaren 22an jokatuko dute.

Partehartzaile guztien artean, azken urteotako ohiturari jarraiki, Doneztebe A taldea da faborito nagusia, Josu Prim Laxoa Elkarrekin kideak azaldutakoaren arabera. «Ez dut gogoratzen zenbat txapel dituen Doneztebeko taldeak, baina baditu anitz, eta aurten ere, printzipioz, hor dago faborito moduan, beti bezala». Primen aburuz, nekeza da esatea ezustekoa emanez nor garaitu lezakeen Doneztebeko laukote indartsua. «Aurten sortu da talde berri bat. Elizondok aspalditik ez zuen atera, eta aurten atera du. Taldea betetzeko, beste herrietatik atera behar da norbait, eta horrelako zerbait gertatu da: batzuk atera dira eta beste batzuk moteldu dira. Ez dakit zer erran».

Aurtengo txapelketa, bestalde, ohi baino laburragoa izanen da, Prim iruritarrek azaldu zuenez. «Iaz bederatzi talde ziren, eta egin genuen liga bete bete, denok denon aurka. Aurten hamar talde dira, bi taldeetan banatu behar izan ditugu, eta askoz txikiagoa bihurtu da txapelketa». Dena dela, ligaz gain kopa jokatuko dute. «Hor zozketa huts-hutsa egiten da, irabazten duena hurrengo fasera pasatzen da, eta berriro zozketa. Askoz laburragoa da, eta hilabete batean akitzen da».

Aurten, beraz, laukote berri bat sartu da ligan. Hori, baina, ez da ohikoa. Partehartzaile kopuruari dagokionez, gora-behera gutxi izaten dira, orain arte jokatu diren 18 txapelketetan jokalaria eta antolatzaile bezala parte hartu



Argazkikoa bezalako irudiak ekainera bitartean ikusi ahal izanen dira Baztanen eta Malerrekako.

LANDA

Nazioarteko topaketa

Baztan-Malerrekako txapelketan irabazle ateratzen dena Euskal Herriko txapelduna izanen da. Garai batean laxoa pilota jokoen artean errege izan bazen ere, Baztan-Malerrekakoa da gaur egun Euskal Herrian jokatzen den laxo txapelketa bakarra. Baztan-Malerrekakoa ez dira, baina, mundu zabaleko laxo jokalaririk bakarrik. Horren erakusle, heldu den abuztuko azken astean Nazioarteko Lehen Laxo Topaketa jokatuko dute Baztanen. Belgikako eta Valentziako taldeak etorriko dira Nafarroara.

Josu Prim Laxoa Elkarrekin kideak adierazi zuenez, «kuriosoa da, guk pentsatzen dugu hemen Euskal Herrikoak, edo Nafarroakoak, pilotan mundu zabalean jaun eta jabe garela, baina ez da horrela». Primen arabera, «joko luzea, paretarik gabeko jokoa jokatzen dute Italian, Belgikan, Holandan, Frantziako iparraldean, eta Latinoamerika kasik osoan». Joko luze hori laxoaren oso antzekoa da. «Bote luze jokoa hemen aspaldi galdu zen, eta hori da. Laxoa bezala da, baina eskuz. Kentzen dugu tresna, eta eskuz jokatzen dugu. Zelai batean jokatzen da, laxoa bezala, eta nazio horietan jokatzen da».

Nazioarteko topaketak egitearen aukera Valentziako kazetari baten eskutik heldu zen. «Valentziatik kazetari ikertzaile bat etorri zen, Alberto Soldado. Berak entzun zuen hemen horrelako zerbait jokatzen genuela. Gurekin harremanetan jarri zen, eta bilkura egin genuen. Joan den abuztuan egin genuen hemen nmintzaldi bat pilotari buruz. Bideo bat jarri zuen, eta kontatu zigun nola jokatzen den Belgikan, Italian, eta arras polita izan zen. Joan den abenduan hona erakustaldia egitera etorri ziren. Gero bazkaria egin genuen, eta, bizpahiru kopatxo edan ondoren, topaketa egiteko ideia sortu zen».

duen Primen arabera. «Zortzi, hamar... Horren inguruan ibiltzen gara. Gogoratzen naiz 1986an hamalau talde izan genituela, baina gauza berezia zen. Hendaiaetik etorri zen talde bat, Donamariatik bi... Donamariako herrietik, adibidez, aurten jada ez da ateratzen talderik. Ez dakit zergatik edo nola, plaza estali dute, paratu dute teilatua». Ohi-

ko arazoa da hori. «Ez da erraza laxo plaza ateratzea, eta aldrebes gertatzen da maiz. Frontoi bat dugu herri batean, baina igual momentu horretan ez da laxo talderik, eta pentsatzen dute estaltzea. Estaltzen badute, akaboa».

Kantxak, akaso, ez daude ziurtaturik. Jokalaririk harrobia, berriz, bai. Baztan-Malerrekako



Laxoa Elkarrekin antolatu du txapelketa.

LANDA

harrobi sendoa dauka laxoak. Horren erakusle, urtero, gazteen laxo txapelketa. «Abuztutik aitzinera egiten dugu; aspalditik ditugu bost talde, eta horiekin txapelketa egiten dugu. Harrobia badugu, baina hori beti zaindu behar da». Izan ere, Primek ez dakusa oso argi laxoaren geroa. «Joko berezi bat da, eta momentu honetan, beste jokoekin konpa-

ratuz, pobreena da. XVII. mendean badira datuak kirol erregea izan zela erakusten dutenak, baina orain hori berreskuratzea ezinezkoa da. Bakarrik geratu da hemen, Baztanen eta Malerrekako. Dena dela, Bertizko Turismo Partzuergoak bere babesas eskaini dio aurten txapelketari, eta horrek zertxobait argitu du laxoaren etorkizun iluna. X

◆ Miguel Ezkurdia ◆ Bideko Ama Birjinako Ginekologia Zerbitzuko burua

«Bakarrik daude emakumeak menopausian»

Espainiako Obstetrizia eta Ginekologia Elkartek, ordezkio hormona terapiak menopausia ondoko emakumeentzat duen garrantzia liburu kalera du. Elkarteko lehendakariordea da Miguel Ezkurdia Bideko Ama Birjina Ospitaleko Ginekologia Zerbitzuko burua, eta berarekin mintzatu gara gai horri buruz.

Eduene Elizondo / Iruñea

BIDEKO Ama Birjina Ospitalean hartu gaitu Miguel Ezkurdia doktore iruindarrak, menopausiaren eraginari buruz hitz egiteko. «Emakume guztiek pairatu beharreko gaitza da, gaur egun ordezkio hormona terapiari esker arindu daitekeena».


■ Zein da liburuaren helburua?

Ikerketaren aurretik, duela urtebete, menopausia ondoko emakumei buruzkoa egin genuen. Bi liburuok kaleratu ditugu Espainiako Obstetrizia eta Ginekologia Elkartek uste duelako gai hagit garrantzitsua dela, biztanleriaren erdia baino gehiagok pairatzen baititu menopausiaren sintomak. Emakumeen % 15-20ak ez du sintomarik nabaritzen, baina gainontzekoek, asko molestatzen dituzten sintomak pairatu behar dituzte: beroaldiak, depresioa, adiurre txarra eta abar.

■ Baina orain badago sintoma horiei aurre egiteko biderik.

Azken hamabi-hamalau urteetan tratamendu berriak sortu dira, oro har ordezkio hormona terapiak deitzen direnak. Haien bidez, sintoma horiek guztiak desagertu egiten dira. Horretaz gain, erdiko epe eta luzera emakumeak pairatuko dituen arazoak konpontzeko ere balio du ordezkio hormona terapiak: mina sexu harremanetan, azalaren lehortzea, aldaketa kardiobaskularrak, osteoporosia...

■ Eragozpenik al du tratamenduak?



Miguel Ezkurdia, Bideko Ama Birjinako Ginekologia Zerbitzuko burua, bulegoan.

LUIS AZANZA

Bai. Hasteko erran beharra dago, tratamendua ongi egin behar dela, ez baita berdina umetokia duten edo ez duten emakumeentzat. Umetokirik ez duten emakumeek estrogeno tratamendua jarraitu behar dute, eta badutenek, estrogeno eta progesterona tratamendua. Ikusi baita, umetokia duten eta bakarrik estrogeno tratamendua jarraitu duten emakumeek, uteroan minbizia izateko aukera handiago dutela. Baina tratamendua ongi eginez gero, alderantziz gertatzen da, aukerak gutxitu egiten dira. Tratamenduak bularreko minbizian izan dezakeen eragina zehazteke dago, oraindik ez baitago argi aukerak handitu edo gutxitu egiten diren. Dena dela, azpimarratu behar da ordezkio hormona terapia egiten duten emakumeak disziplina handiko emakumeak direla, be-

raz, ginekologoarengana joaten dira, eta edozein arazo egonez gero, garaiz aurkitu daiteke.

■ Menopausiara ailegatzea trauma al da emakumeentzat?

Oro har, uste dut ezetz. Nere ustez, poztan dira hilekoa gehiago ez izateagatik eta haurdun gelditze ariskurik ez izateagatik. Baina, bestalde, emakume askok pentsatzen du menopausiarekin ez dela hain emakume, nahiz eta oker izan. Antonio Galak *Mas alla del jardín* liburuan hagit ongi azaltzen du menopausia zer den. Protagonista bere ginekologoarengana joaten da azaltzeko ulertzen ez duen hainbat gauza gertatzen ari zaiola, gaizki dagoela. Eta ginekologoak erantzuten dio, bere biologia amaitu eta biografia hasi dela. Hori da menopausia. Emakumeentzat larriagoa da adin horretan etxetik kanpo lanik egiten ez badute baliagarriak ez direla uste izatea. Seme-alabak jada ez dira haurrak, senarrak lan handia du eta denbora gutxi ematen du etxean. Habi hutseko sindrometza jotzen da egoera hau. Horri menopausiaren sintomak gehitzen badizkiozu... Ba-

karrik egiten diote aurre menopausiari emakumeek.

■ Gaur egun, ordezkio hormona terapia dute emakumeek. Lehen, halakorik ez zegoenean, gaizki pasako zuten emakumeek...

Azken hamalau urteetan lortu da emakumeen obulutegiak sortzen dituen hormonen berdinak diren hormonak sortzea. Beraz, menopausiara orain dela gutxi ailegatu diren emakumeek erabil ditzakete, ez ordea orain hamar bat urte iritsi zirenek. Beraz, horiek eta aurrekoek, oso gaizki pasatzen zuten. Psikiatrarengana joaten ziren, arrazoirik gabe negarrez hasten zirelako, deprimetuta zeudelako, inork ulertzen ez zituelako. Orain, hormonen arazoak sortarazten dituen sintoma horiek guztiak konpondu daitezke.

■ Beste gai bati helduz, Emakumeentzako Osasun Laguntza Plana prestatzen ari da Nafarroako Gobernua. Horren arabera, emakume bakoitzak bere ginekologoa aukeratu ahal izanen du. Zer deritzozu? Ezinezkoa iruditzen zait. Has-

s o s l a i a

Orain dela 55 urte jalo zen Miguel Ezkurdia, Iruñeko Milagrosa auzoan. Batxilergoa Iruñean bertan ikasi zuen, eta Medikuntza, berriz, Zaragozako Unibertsitatean. Karrera osoa egin zuen bertan, eta amaitu ondoren, La Paz amatean hasi zen lanean, Madrilén.

Mediku egoiliarra izan zen bertan. Hirugarren urtean, hain zuzen, doktorego tesia irakurri eta cum laude kalifikazioa lortu zuen. Madrilén 1974. urtera arte egon zen.

Urte horretan, Bideko Ama Birjinaren Ospitalera iritsi zen Miguel Ezkurdia eta abuztuaren bertako Ginekologia Zerbitzuko burua izendatu zuten. «Ni iritsi arte hemen ez zen inoiz zerbitzubururik izan», gogoratu du iruindarrak. Leku eta kargu berean eman ditu urte hauek guztiak.

teko, emakumeek ez dituzte ginekologoak ezagutzen. Bestalde, Iruñeko emakume batek ez du Elizondoko ginekologoa aukeratu. Bakoitzak dagokion osasun etxeko ginekologoa aukeratu duela pentsatzekoa da, eta hori baino ez badaude, azkenean, bat edo bestearen artean aukeratu du emakumeak.

■ Plana oraindik elkarriketa aldian badago ere, COFES zentruetatik jada hainbat kritika egin diote, besteak beste sistema ospitalarioaren barruan sartu nahi dituztelako, COFES bezala desagertuz.

Arazoa da planaren arabera biztanleriaren zati zehatza hartu beharko luketela, eta gaur egun, nahi duenak jo dezake bertara, arazo zehatz batzuk tratatzera. Eta horregatik dira COFES zentruak, hau da, Familia Oriantatutako eta Sexu Heziketarako Zentruak. Planak ohiko ginekologoak sortu nahi ditu, baina nere ustez zientziaren garapenerako hori ez da batere ona, ugalkortasunaz asko dakien ginekologoak minbiziaz ere asko jakitea oso zaila baita. x

BEKARIO!

Zaldi Eroa

